

264. zk.

Bigarren aroa

Azaroak 1
2015

Irungo
euskarazko
hamabostekaria

Irunero

Erreportajea

Beldur Pasabidea.

5. orrialdea



Kirolak

Leka Enea
mahai tenis elkarte,
mailarik gorenean

8. orrialdea



Barazkiak, auzoan

3 **Elkarrizketa:** Gema Urtizberrea, Herri Jakintzako zuzendaria.

4 **Berria:** Babestutako etxebizitzak zabaldu dituzte Caserren.

6-7 **Erreportajea:** Sport Jam.

9 **Kirolak:** Behobia-Donostia lasterketaren prestakuntza.

11. **Haurren lanak** Irungo La Salle LH2.

12 **Gazteen lanak** Txingudi Ikastola BHI 1. maila.

13 **Gaztea** Irungo Gazte Informazio Bulegoa.

14 **Gazte infor**

15 **Agenda**



T & T Hizkuntzak



Ingelesa 4 urtetik aurrea !!

- Klaseak taldeka eta pertsonalizatuak
- INGELESA, EUSKARA, FRANTSESA, ALEMANA, ITALIERA, ESPAINIERA
- Enpresentzako klaseak eta ikasleentzat alor guztietako laguntza klaseak
- Maila guztiak
- Tituluak eskuratzeko klaseak



Kale Nagusia, 27 - IRUN - 943 63 52 59
academiatyt@gmail.com

Argazki lehiaketa

Irun atzo Irun gaur

IUA: 40357



Irati Etxeberria

Irungo erdialdean ateratako argazkia, Beraketa kalean. Graffiti eta estilo klasikoko etxea.

Argazki lehiaketan edonor izan daiteke parte hartzaile. Ez dago adinari edo bizitokiari dagokion mugarik.

Gaia bakarra izango da: Irun. Irungo jendea, lekuak, natura, etab.

Saria: urtearen bukaeran, argitaratu ditugun argazkien egileen artean sari bat zozkatuko dugu.

Bete beharrekoak: argazkiak kalitate ona behar du izan. Argazkiarekin batera, deskribapen txiki bat bidali beharko du egileak.

Argazkiak bidaltzeko: jarozena@irunero.com

Bartolomé de Urdinso kalea



Bartolomé de Urdinso kalea San Migel auzoan kokatuta dago. Lepanto kalearen perpendikularra da, Blas de Lezo kalearen paraleloa, eta Anaka kalean amaitzen da. 1971ko maiatzaren 25eko Osoko Bilkuran jarri zioten izena kaleari.

Bartolomé de Urdinso Arbelaiz irundarra, gerrako itsasgizona izan zen Hegoaldeko Armadan. Jeneral izan zen, Blas de Lezo Almirantearen aginduetara.



Francisco Gainzak dienez, Hego Itsasoan hil zen, Payta de Indias portuan, 1726an.

Ezkerreko eta eskuineko argazkien artean alde handia ikus daiteke. San Migel auzoak aldaketa handiak izan zituen XX. mendean zehar.

Iturria: José Monje.
Irungo kaleen izenak.

Irunero

Erredakzioa eta maketazioa:

Joseba Arozena eta Unai Oiartzun

Euskara zuzentzailea: Unai Oiartzun

Publizitatea:

Sonia Garcia Olazabal, Amaia Terrazas

amaiaterrazasruiz@gmail.com

Ion Otxoa

ion@943sansebastian.com

Argitaratzailea:

Baseclick S.L.

ISSN: 1134-0606

Lege gordailua:

SS-230-94.

Maiatzaren Lehena, 23 - 20304 IRUN

Tel: 673 39 84 57

Anaka kalea, 11
IRUN
943-61-54-57

TABISA
TANATORIO DEL BIDASOA

San Pedro kalea, 49
HONDARRIBIA
943-64-54-57



BETIDANIK KONFIANTZA ETA ARDURAREKIN



Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAIA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Wazozaragoria de Politika Lingüística

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura
Sailak (Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du

“Titulua lortu ahal izateko etortzen dira ikasle gehienak”

GEMA URTIZBEREA

1994 urtean hasi zen Gema Urtizberea Herri Jakintza euskaltegian irakasle. Hiru hilabeterako eskaintza luzatu zioten hasieran, baina hogeita bi urte egingo ditu otsailean. Gaur egun, euskaltegiko zuzendaria da. Egoitza txikia duen arren, 165 ikasle dabilta aurten Herri Jakintzan. Sei irakasle ari dira, guztira, Nafarroa ibilbideko euskaltegian.



Nola hasi zinen Herri Jakintza euskaltegian?

Nik irakasle ikasketak egin nituen, eta ordezkapenak egiten ibili nintzen eskola publikoetan. Herri Jakintzako aurreko zuzendariak deitu zidan halako batean, hiru hilabetez klaseak ematen aritzeko. Gero gelditzeko aukera eskaini zidan, eta eskola publikoa utzi nuen.

Zergatik hartu zenuen erabaki hori?

Ni berez Natur Zientzietan espezializatu nintzen. Baina euskaltegian proba egin nuenean, gustura sentitu nintzen. Ikasleekin, baina batez ere, beste irakasleekin. Lan giro polita dugu. Harremana oso ona da gure artean, eta beste lanbide batzuetan egon daitekeen lehiarik ez dago.

Zein ibilbide izan zuen Herri Jakintza euskaltegiak zu iritsi aurretik?

Duela hogeita hamabi urte homologatu zuen HABE Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak. Aldez aurretik EAJK sortutako gau eskolek egindako lanari jarraipena eman zion. Gau eskolen garaian ia musu-truk ari-

tzen ziren, eta homologazioari esker, diru-laguntzak jasotzen hasi ziren.

Askok aldatu al da klaseak emateko modua?

Ni euskaltegian hasi nintzenetik, HABEK hiru curriculum ezberdin egin ditu jada. Aurten Europako markoan sartu gara, maila dagokienez: A1, A2, B1, B2, C1 eta C2. Hasieran oso material gutxi zegoen, ariketak irakasleek beraiek prestatzen zituzten. Pixkanaka liburuak sortu ziren, eta fotokopiak egiten genituen. Orain, internet erabiltzen dugu batez ere. HABEK ariketa asko ditu eskegita, mailaren arabera. Baita azterketak ere. Esango nuke teknologikoago dela irakaskuntza.

Ikasleen profila eta helburuak ere aldatu dira?

Gaur egun, Herri Jakintza euskaltegian behintzat, titulua lortu ahal izateko etortzen dira gehienak. Ikasleen % 20 bakarrik hurbiltzen da halako helbururik gabe. Gehienak behartuta etortzen dira, azterketa bat gaituzte behar dutelako. Aurten, esaterako, Osakidetzako oposizioak egingo dituzte,

eta nabari da jendea presatzen dabilela.

Hizkuntza bat ikasteko denbora eta pazientzia behar dira. Presa ez da bidelagun ona.

Ez, baina gehienei ez zaie inporta, azterketa gaituzte da haien ardura. Guk taldeak mailaka banatzen ditugu, eta mailaketa probak egiten ditugu. Gutxieneko batzuk bete behar dituzte ikasleek, eta ez badeute lortzen, ez ditugu maila horretan onartzen. Hori egingo bagenu, eta gero ikasleak azterketa gaituzte ez balu, izugarriko porrota izango litzateke berarentzat, eta

euskaltegiarentzat ere bai, gero gaizki esaka aritzen delako jendea.

Zergatik gustuko duzu euskara irakasle izatea?

Jendeari laguntza ematea gustatzen zait. Ikasleak titulazioa nahi baldin badu, maila horretara heltzen laguntzea. Baina aldi berean, transmitzea hizkuntza oso polita dela, eta komunikatzeko ere balio duela. Ederra da ikaslearengan hizkuntzarekiko maitasuna sortzea.

Lortzen al duzue?

Saiatzen gara. Egia da gehientzat euskara aspergarria dela, gaituzte beharreko azterketa gogai-

karria. Bakar batzuek izaten dute halako eboluzio bat. Gu, behintzat, ahalegintzen gara transmisio kulturala egiten. Dena den, onartu behar dugu gu ere oso burokratikoak izaten garela askotan.

Zein beste zailtasun topatu izan duzu?

Batez ere, ikasle guztiak ez dutela maila berdina izaten. Batzuek gaitasun handiagoa dute besteek baino. Beraz, zaila da klasearen erritmoa orekatzea. Gero, egia da euskaltegi publikoetan material eta baliabide gehiago izaten dituztela, eta ikaslea erosoago sentitu daitekeela. Eusko Jaur-

laritzak gure eskola orduak diruz-laguntzen ditu, baina ez gaitu hornitzen.

Euskaltegitik kanpo euskara praktikatzeko aukerarik eskaintzen al du irunek?

Ez, jendeak ez baitu hitz egiten. Egin izan diren ikerketek argi utzi dute jende askok badakiela euskaraz, baina ez duela erabiltzen. Mintzalaguna eta beste-lako ekimenak antolatu izan dira, baina jendearen parte hartzea eskasa da. Irun oso leku zaila da euskaraz hitz egiteko. Nik bi seme ditut, eta lagunekin gaztelaniaz aritzen dira, ikastolara joan badira ere.

Olaizola

Immobiliaria agentzia

- ✓ Salmenta-Alokairuak
- ✓ Promozio berriak
- ✓ Aholkularitza

Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
info@inmobiliariaolaizola.com
www.inmobiliariaolaizola.com

Pausu bat aurrera Caser Betharramen

Babestutako etxebizitzak inauguratu dituzte Caser Betharramen



Hilaren 22an, babestutako etxebizitzak inaugurazio ofiziala egin zuten Caser Betharramen. Ekitaldiari hasiera emateko, Jose Gogorza apaizak zentroa bedeinkatu zuen.

Ondoren, Iñaki Telleria zentro berriko zuzendariak, instalazioak erakutsi zizkien kazetariari, sektoreko profesionalari, Txomin Sagarzazu Hondarribiko alkateari, eta Mónica Martínez Irungo Gizarte Zerbitzuetako zinegotziari.

- 16 etxebizitza daude guztira alokairuan. Horietatik sei, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin kontzertatuak dira, osasun mentaleko arazoak dituen jendearentzat prestatuak. Beste hamarrak autonomia nahikoa duten edadetuei zuzenduta daude.

- 40 metro karratuko zabalera daukate, eta oso argitsuak dira.

- Hilabeteko 600 euro balio dute (ura eta elektrizitatea barne)

- Beste zerbitzu batzuk gehitu daitezke: garbiketa, bazkariak, etab.

- Eraikina Caser Betharramen ondoan dago, eta barrutik erabat berritu dute.

- 3 solairu dira, eta 5 etxebizitza daude solairu bakoitzean.



Anaka kalea, 8 - IRUN 943 667780



CASER ANAKA



GURE AITONA-AMONEN
ONGIZATEA HELBURU

Egonaldi iraunkorrak
eta aldi baterakoak

Zubieta, 121 - HONDARRIBIA 943 647169



CASER BETHARRAM

DEABRUJEN FICOBAN HARTIKO DIETE

Beldur Pasabidea antolatu dute hamaikagarren aldiz

Halloween edo Sorginen Gaua ospatzen dute urriaren 3In herrialde anglosaxoietan. Jatorri zelta du ohiturak, baina mundu osoan zabaltzen hasi da aspaldi. Irunen, Santiagoko Deabruak Kultur Elkarteak antolatzen duen Beldur Pasabidea da gaiarekin lotura duen ekitaldi nagusia. 2004an egin zuten lehen aldiz, Santiagoko bidegorrian. Aurten azaroaren 7an izango da, Ficoba Erakustazokan.

200 metro baino gehiagoko ibilbidea prestatu du Santiagoko Deabruak elkarteak Ficoban. Beldurrezko eta suspenseko filmetan edo literaturan oinarritutako eszenatoki handia da. 27 aktore egongo dira ibilbidean zehar banatuta, generoko pertsonaiez mozorrotuta. Sartzeraz auzartzen diren bisitariekin elkarreragina bilatuko dute, gainera. Ordu laurdenero sartuko dira ibilbidean 180 lagun inguruko taldeak. Guztira, 2.000 bisitari baino gehiago espero dituzte. Azaroaren 7an, 18:00etatik 22:00etara egongo da pasabidea zabalik. Lau ordu luze bezain dibertigarri izango dira aktoreentzat.

Irailan hasi dira Beldur Pasabidea antolatzen. Asteburuetan elkartu dira, landuko dituzten gaiak eta pertsonaiak erabakitzeke, edo materiala biltzeko eta prestatzeko. "Proposamenak egiten ditugu, gehienetan filmetan inspiratuta. Gero ikusi behar da gai garen ideia horiek aurrera eramateko. Aurten, hiru berrikuntza daude", azaldu du Josean Burguetek. Jantzi asko eskuz egiten dituzte, eta atrezzoak, kalean bilatzen dute. Lore zimelak, adibidez, kanposantutik hartzen dituztela kontatu du Maika Azkuek. "Zabortegira ere hurbiltzen gara, probetxuzko materialaren bila", erantsi du Burguetek. Nabarmenezkoa da erabiltzen dituzten gorpuzkiak benetakoak direla, behienak edo ardienak.

Aktoreak amateurak dira, Santiagoko Deabruak-eko boluntarioak. Esperientzia dezente hartu dute, hala ere, Beldur Pasabidearen aurreko hamar edizioetan. Gakoa antzerkian murgiltzea dela adierazi du Maika Azkuek: "Batzuk beldurtiak edo lotsatiak izaten dira hasieran. Baina behin pertsonaia barneratuta, gainerakoa ahaztu egiten dute". Gutxieneko adina ezarri dute, hala ere, aktoreak onartzeko. Hamalau-hamasei urtetik gorako gazteak hartzen dituzte. Arrazoia da haurrak zirikatatu edo bultzatu izan dituztela aurreko edizioetan. "Arazo txikiak izaten dira, baina denetarik egoten da. Gazte batzuk harrotuta sartzen dira pasabidean", aipatu du Josean Burguetek.

Sarreran auzartak izaten dira bisitariak. Baina pasabidean aurrera egin ahala, kikiltzen joaten dira asko eta asko. Ihesbideak daude, ez aurrera eta ez atzera gelditzen direlako batzuk. "Ez haurrak bakarrik, gaztetxoak eta helduak ere bai", azpimarratu du Josean Burguetek. -

Gazte batzuk lagunen bat ikusteko asmoz sartzen dira, baina ez dute beti lortzen. Makillatzaileen lana dago horren atzean. Boluntarioak izaten dira, makillajea ikasleak edo zaleak. Pasabideari ekarpen handia egiten diote, era berean, Irudi Ots enpresako kideek. Soinu eta argi efektuak prestatzen dituzte, pasabideari errealismoa emateko. "Sekulako muntaia" egiten dutela nabarmendu du Burguetek.

Bidegorriaren xarma gogoan

Ficobak, efektu berezien erabilera errazten du. Gainera, eguraldiari dagozkion arazoak ekiditen ditu. Hala ere, ez du Santiagoko bidegorriaren xarma berbera. "Paraje natural itzela da hura", gogoratu du Josean Burguetek. Bidegorrian egin zituzten Beldur Pasabidearen lehen edizioak. Maika Azkue aktore izan da hasieratik, eta lehen edizioa presaka antolatu zutela gogoratu du: "Urriaren erdi aldean bururatu zitzaigun. Haurrek Halloween gaua zela eta mozorrotu nahi zuten, eta kaleko antzerki bat egitea otu zitzaigun". 2004an izan zen. Jendea "txundituta" gelditu zela baieztatu du Azkuek. Ez zuten esperientziarik, baina ilusioarekin eta grinarekin ordezkatu zuten gabezia. "Hasieran odola nola egiten zen ere ez genekien. Lehen edizioan piperrautsarekin saiatu ginen. Kolorea ematen zuten, baina ez behar genuena. Gainera, sekulako kiratsa sortzen zuten", azaldu du Azkuek.

2011n, Beldur Pasabidea bertan behera utzi behar izan zuten, euriaren ondorioz. Eragozpen hori saihesteko, Ficoba Erakustazokara lekualdatu zuten hurrengo urtean. Lan handiagoa ematen du ibilbidea Ficoban antolatzeak. Alabaina, denbora gehiago ere uzten diete. Hiruzpalau egun lehenago sartu ahal izaten dute Ficoban, eta bi egun uzten dizkiete jasotzeko. Bidegorrian arineketan aritzen zirela esan du Cristina Arretxeak: "Goizeko zortzitan hasten ginen prestatzen. Hamarretan saioa bukatu eta ordu biak arte egoten ginen jasotzen, hurrengo egunean bidegorriak libre egon behar zuelako". Gastu gehiago ere baditu Ficobak, noski. Horiei aurre egiteko, 2 euroko sarrerak dituzte salgai. Carlos Blanco Aguinaga kultur gunean dagoen Gazte Informazio Bulegoan erosi ahal izango dira, azaroaren 2tik 5era (17:00-19:30). Ikuskizunaren egunean Ficoban salduko dituzte, 17:30etatik aurrera.



Cristina Arretxea, Josean Burguete eta Maika Azkue.



MOTA GUZTIETAKO LAN ETA KONPONKETAK ETXETAN NAHIZ DENDETAN

- ✓ Arotzeria
- ✓ Margolanak
- ✓ Zaharberritze lanak
- ✓ Lorategiak
- ✓ Iturgintza
- ✓ Sarrailak
- ✓ Elektrizitatea
- ✓ Instalazio zein muntaketak
- ✓ Garbiketa bereziak eta abar

DAVID:
655 70 98 93

Bilakaera etengabea izan du Sport Jam-ek hamar urtean

Aurrera egin aurretik, atzera begiratzeko urtea da 2015a Sport Jam azokarentzat. Duela hamar urte eman zituen lehen urratsak, 2006an egindako edizioarekin. Aurten bi azoka antolatu dituzte. Joan den maiatzean, udako eta uretako kirolei lotutakoa egin zuten. Azaroaren 14-15eko astebururako, ohiko feria prestatu dute. Ohikoa datari dagokionez, berritasunak izango baititu aurten ere. Merkatuaren bilakaerari jarraituta, proposamena eraldatu izan du Sport Jam-ek urtero. Gaitasun hori izan da azokaren nortasunaren bereizgarri.

Surf-ean espezializatutako azoka profesionala izan zen Sport Jam hasieran. Estanis Polo irundarrak jarri zuen martxan, Michel Hoff enpresariaren babesarekin. Kirol materialaren arloko azoken sektorean esperientzia zuen Polok ordurako. Nazioarteko Merkataritza ikasi zuen Baionan. Azokak antolatzen zituen enpresa batean hasi zen lanean, eta Biarritzeko surf azoka sortzen parte hartu zuen, 1990eko hamarkadaren hasieran. 2002an, Behe Bidasoa eskualdeko lehen surf azoka kudeatu zuen Polok, Hondarribian. Karpetan antolatu zuten, gaur egun Kirol Kaia dagoen lekuan. 2003an, Snowjam sortu zuen Jacan. Snowboard modalitateko azoka profesionala zen. Madrilgo Xanadu elur-pista estalira lekualdatu zuten beranduago.

Madrilen zegoela, Michel Hoff surfeko enpresariaren elkartearen presidenteari bisita jaso zuen Polok. Irungo Ficoban surf feria antolatzeko ideia proposatu zion. Irundarra izanik ere, Estanis Polok ez zuen argi ikusten: "Azpiegitura egokiak leku askotan aurki ditzakezu, baina azokak

bestelako lotura bat behar du inguruarekin". Kokapenak, ordea, bazuen beste abantaila bat. Frantziako estatuko merkatuarekiko hurbiltasuna, hain zuzen ere. Hura erakartzeko interesa zutela onartu du Polok: "Frantziako merkatua oso indartsua da sektorean. Lortu dugu bisitariak erakartzea, baina ez nahi bezain beste. Muga bat dago oraindik. Ez dakit kulturak edo hizkuntzak eragiten duen. Baina nabari da".

Zalantzak zalantza, azoka antolatzeko erabaki zuen Estanis Polok. Urtetan bildutako esperientzia eta kontaktak zituen alde. "Momentu horretan, sektoreko marka gehienek babesa nuen", gogoratu du. Ez du ahaztu, era berean, izenaren aukeraketak lana eman ziola. Baina pozik dago emaitzarekin: "Uste dut asmatu genuela, ez genuelako aterik itxi. Asko espezializatzea onuragarria izan daiteke momentu jakin batean. Baina gero kalte ere egin dezake, sektorea oso aldakorra baita". Eraldatzeko aukera zabalik utzi zuten hasieratik, eta behin baino gehiagotan heldu diote, gainera.



2006 urtean "Rip Curl"en stand bat egon zen.



Urpekariak egon ziren 2008ko edizioan.



2007 urtean "Vans"ek stand bat izan zuen.



Dany Leonek 2010 urtean parte hartu zuen.

"Uste dut izenarekin asmatu genuela, ez genuelako aterik itxi"
Estanis Polo, antolatzailea

"Frantziako merkatua oso indartsua da sektorean"
Estanis Polo, antolatzailea

sartu www.txingudionline.com-en eta ezagutu hobeto zure hiria

Ferria munduan, Kizilak, Desdi nuaire merros, merrosakanda, La Baratus, Ocurrid, Falso de cine, Historias de Bidasoa, Zuboga, Kirolak, Bidasoa, Real triñak, Txingudi al Nabla, Poite en forma, Erreala munduan, Kizilak, Desdi nuaire merros



HONDAIA IRUN HONDARRIBIA

 txingudionline.com

merrosakanda, La Baratus, Ocurrid, Falso de cine, Historias de Bidasoa, Zuboga, Kirolak, Bidasoa, Real triñak, Txingudi al Nabla, Poite en forma, Erreala munduan, Kizilak, Desdi nuaire merros

berriak, erreportajeak, historia, kirolak, hurbiltasuna, eztabaidak

Zuboga, Kirolak, Bidasoa, Real triñak, Txingudi al Nabla, Poite en forma, Erreala munduan, Kizilak, Desdi nuaire merros, merrosakanda, La Baratus, Ocurrid, Falso de cine, Historias de Bidasoa



Scooter Xtream modalitateak arrakasta handia izan du azken edizioetan. Argazkia 2011koa da.



Azken urteotan FMX egon da Sport Jam-en. Argazkia 2013koa da.



BMX txirrindak ohikoak izan dira Sport Jam-en. Argazkia 2014koa da.

Aldaketaz aldaketa

Hasieran, azoka profesionala izan zen Sport Jam, dendei zuzendutakoa. Egun bakarrean ematen zioten publiko orokorrari sartzeko aukera. Arrakasta zuela ikusi zuten, ateak guztiz zabaltzea erabaki zuten. Antzeko zerbait gertatu zen azokako kirol nagusiarekin. Surf azoka izan zen Sport Jam bi urtez. Baina skateboard sekzio txiki bat ere bazuen. "Konturatu ginen hark erakartzen zuela jende gehien. Beraz, skate-aren inguruan antolatu genuen azoka hurrengo urteetan". Estatuko skateboard azoka nagusia izan zen Sport Jam 2010era arte. Orduan, scooter-a sartu zen indartsu, eta skate-aren lekua hartu zuen.

Eraberritzeko ahalmenera esker eutsi dio Sport Jam-ek hamar urtez. Marka erreferentea da sektorean. Baina edukia urtero aldatu izan da: "Merkatuaren jorari segitu diogu. Horretarako, adi-adi egon beharra dago. Parkera hurbildu, bidaiatu, azoketara joan, bezeroekin eta komunikabideekin hitz egin... Parametro asko dira kontuan hartu beharrezkoak", nabarmendu du Estanis Polok. Hamar bat lagun aritzen dira urte osoan zehar Sport Jam antolatzeke lanean, ardua eta intentsitate ezberdinekin. "Aldi baterako langileak eta kolaboratzaileak ditugu. Lehen lan talde finkoa genuen, baina orain egitura hori ez da bideragarria", azaldu du Polok.

Sektorean elkarren kompetentzia diren markak eta dendak biltzen ditu azokak. Hala ere, denei mesede egiten diela uste du Estanis Polok: "Kontziente izan behar dira, elkartzuz gero, sektore guztia haziko dela. Horretarako denek egin behar dute ekarpena". Halako ekimenen beharra du sektoreak, multinazionalen indarraren aurrean. "Duela hamar urte, Decathlonek estatuan ez zuen gaur egun duen garrantzia. Orduan, dendari txikiek indar handiagoa zuten. Denborarekin, horietako askok itxi egin behar izan dute", aipatu du Polok. Sport Jam azokak inguruko dendetan eragin zuzena duela ere baieztatu du antolatzaileak: "Azokaren ondoren, salmentek gora egiten dute".



Argazkian 2009ko hall-a ikus daiteke.



SUP modalitatea, 2012 urtean.

Berritasunak eta beharpenak

Azaroaren 14an eta 15ean egingo dute 2015eko neguko Sport Jam azoka. Irris-tatze kirolak izango dira nagusi. Arrapala erraldoia egongo da, eta esperientzia handiko patinatzaileek eskainiko dituzte ikuskizunak. Bilbo Bladers klubeko ordezkariak egongo dira, esaterako. Longboard taulak ekoizten dituen Goat etxe nafarrak ere parte hartuko du. Udako edizioeko hainbat elementu mantenduko dituzte. Frantzia hego-ekialdeko AquaDesign enpresak erakustokia izango du, adibidez. Uretako kirol materiala saltzen du: kanoak, kayak-ak, Stand Up Paddle Surf-eko taulak, neoprenoak, kaskoak etab.

Prezioetan, beharpen handia egingo dute hamargarren urteurrena dela eta. Erakusketariei 400 euroko beharpena eskainiko diete. 890 euro beharrez, 490 euro ordaindu beharko dituzte erakustokiaren truke. Bisitariak bost euro ordainduko dituzte eguneko, bederatzizko beharrez. "Lehen, azoka elitistagoa zen. Orain jende gehiago erakarriko dugu", aipatu du Estanis Polok. Gainera, akzio kirolekin lotutako elkarteak, federazioak eta artistak gonbidatu nahi izan dituzte antolatzaileek. Doan aurkeztu ahal izango dituzte proiektuak. Eskiera alde aurretik egin beharko dute, info@spolik.com-en.

Hurrei zuzendutako jardura ere antolatu dute. Azaroaren 7an izango da, Sport Jam azoka baino aste bete lehenago. Arrapalak jarriko dituzte Irungo Kale Nagusian, haurrek erabil ditzaten. Scooter-ak, skate-ak, patinak edo bizikletak eraman ahal izango dituzte.

Goi mailan ari dira Leka Eneako talde nagusiak

Superdibisioan jokatzeari gainera, Europako lehiak ibili dira



Mahai teniseko maila gorenean ordezkaritza duen euskal elkarte bakarra da Leka Enea. Bat ez, bi talde ditu gainera Superdibisioan: mutilena eta neskena. Europa mailan ere lehiatu dira biak 2015/2016 denboraldiaren hasieran. Kanpoan gelditu dira jada, baina helburuak beteta. Ligan jarriko dute orain arreta

Europa mailako ETTU Cup lehiaketan parte hartu dute, aurten ere, Leka Enea mahai tenis elkarteko talde nagusiek. Neskak lehen kanporaketan gelditu dira lehiatik kanpo, baina maila handia eman dute. Kordoban jokatu dute lehen fasea, ligan aurkari duten Priego taldearen etxean. Beste hiru talde ere aritu dira: Holandako bat, Belgikako bat eta Portugalgo beste bat. Irundarrak ez dira hurrengo faserako txartela lortzeko gai izan, baina helburua bete dute. "Kontuan hartu behar da Sara Martinez hamabi urteko gaztea eraman dugula, eta ia hurrengo faserara pasatzeko gai izan garela", azpimarratu du Gorka Fernandez entrenatzaileak. Harrobiko jokalariei pixkanaka aukerak ematen ari da Leka Enea. Martinezentzat esperientzia "ikaragarria" izan dela baieztatu du Fernandezek.

Leka Eneako mutilak bigarren faserara heldu

dira ETTU Cup lehiaketan. Lehena etxean jokatu dute, Sonia Etxazarreta teknifikazio zentroan. Bigarrenean Kroaziara bidaiatu behar izan dute. Bertan aurkari gogorrak topatu dituzte, eta ez dute hirugarren faserara igarotzea lortu. Joan den urtean, langa hori gainditzeko gai izan ziren. Hala ere, ez daude aurtengo emaitzarekin atsekabetuta. Ezta gutxiago ere. "Bi talde indartsu zeuden. Asiako jokalariek zituzten", nabarmendu du Jaime Vidal Leka Eneako jokalariek. Gutxienezko helburua bete dutela esan daiteke, beraz. Hurrengo denboraldian beste urrats bat ematen ahaleginduko dira berriro. Baina horretarako, Europarako sailkatu beharko dute, ligan sei onenen artean geldituta.

Eguneroko entrenamendua

Superdibisioan aurkariak taldeak indartu dituzte aurten. Leka Eneak ez du fitxaketarik egin, baina jokalariek elkarrekin jokatu

"Gero eta gehiago dira mahai tenisean ari diren neska irundarrak"

Gorka Fernandez, entrenatzailea

"Arlo fisikoa lantzeak eragin handia du errendimenduan"

Jaime Vidal, jokalaria

zen daramaten denbora du alde. Ezaugarri hori goraitatu du Jaime Vidalek: "Ondo ezagutzen dugu elkar. Talde sendoa gara zentzu horretan". Ciudad Realgoa da Vidal, baina bost urte daramatza Irunen. Valladoliden hasi zen Superdibisioan, eta Leka Enean jokatzeko fitxatu zuten. Taldekideak ere Irundik kanpokoak dira: Dordje Borcic serbiarra da, eta Endika Diez gasteiztarra. Espainiako Txapelketan bigarren izan zen Diez ekainean. Superdibisioan mutilen taldea profesionala da; mahai tenisa da jokalarien ogibidea.

Egunean bi entrenamendu saio egiten dituzte mutilek. Arlo tekniko lantzen dute

mahaian, baina fisikoa ere bai. Gimnasia eta korrika egitera joaten direla azaldu du Jaime Vidalek: "Urte batzuk dira konturatu ginela arlo fisikoa lantzeak eragin handia duela errendimenduan". Gainera, bideo saioak ere egiten dituzte, gaur egun, akatsak zuzentzeko. Aurten hobetu beharreko zerbait azpimarratu du Gorka Fernandez entrenatzaileak: "Uste dut etxean jokatzeko dugunean presio handia izaten dugula. Ikusleek asko animatzen dute, eta irabazteko beharra sentitzen dugu. Kanpoan berriz, espero ez dugunean partidak irabazten ditugu".

Neskak, aldiz, ez dira profesionalak. Eskakizun mailan bai, mutilen parekoak dira: partidak eta bidaiak luzeak izaten dituzte astero, eta egunero entrenatzen ahalegintzen dira. Baina gainera, ikasi edo lan egiten dute, aldi berean. "Ahalegin handia egiten dute", onartu du Gorka Fernandezek. Aldeko datua da neska gehienak irundarrak direla. Atzetik ere, neska gazte asko dituzte ate joka. Europako lehiak parte hartu duen Sara Martinez da adibiderik onena. Harro dago Fernandezek: "Gero eta gehiago dira mahai tenisean ari diren neska irundarrak. Oso garrantzitsua da hori guretzat". Sonia Etxazarreta teknifikazio zentroa martxan dagoenetik, Irungo mahai tenisaren oinarria handitzen ari da etengabe. Gaztetxoentzat, Superdibisioan taldeak erreferente dira.



Behobia-Donostia helburu

20km-ko proba famatua prestatzen ari dira herri korrikalari gehienak

Onddoak bezala, korrikalariak ere biderkatzen dira udazkenean. Nabari da Behobia-Donostia gainean dagoela. Fortuna Kirol Elkarteak antolatzen duen lasterketa jendetsuaren eragina agerikoa da Irungo kaleetan. Korrikalari batzuk bakarka irteten dira. Gehienak, berriz, taldeka. Bidasoa Atletiko Taldean, entrenamendu multzoak sortu zituzten duela lau urte, korrikalari popularrentzat. Behobia-Donostia prestatzen ari dira gehienak asteotan.

Atletismo federatua da Super Amara Bidasoa Atletiko Taldearen oinarri. Ehunka haur eta gazte biltzen ditu krosaren, eta batez ere, pistako atletismoaren inguruan. Hala ere, ez dio atletismo popularrari bizkarra ematen. Urteak daramatza herri lasterketak antolatzen. Gainera, popularrei zuzendutako entrenamendu taldeak sortu zituen duela lau urte. "Korrikalari popularrek gurekin entrenatu nahi zuten, baina federatu gabe. Horregatik sortu genituen talde hauek, taldean entrenatzeko aukera izan zezaten, entrenatzaile baten gidaritzapean", adierazi du Ibon Muñozek. BATEko kirol zuzendari izateaz gainera, entrenamendu taldeetako bat gidatzen du.

Gorka Yubero duela urte bete hasi zen ko-

rrika, aurretik futbolearen ibili ondoren. Lagunekin entrenatzen zuen batzuetan, eta bakarka besteetan. Duela hiru hilabete, BATEko entrenamendu taldean hasi zen, lagun baten gomendioz. Taldean entrenatzea atseginagoa dela baieztatu du Yubero: "Esfortzu handiagoa egiten duzu. Gehiago estutzen duzu gorputza. Gainera, giro polita dago". Entrenatzailearen laguntza funtsezkoa dela azpimarratu du Yubero. Bakarka, beti entrenamendu berberak egiten zituela gogoratu du: "Ezjakintasunak lesioak eragin ditzake. Edo bestela, ahalegin handia egin arren, ez dituzu markak hobetzen. Horrek frustrazio handia sortzen du".

Iraupeneko entrenamenduak egiteaz gainera, gimnasioa, erritmo aldaketak edo

serieak ere lantzen dituzte. "Korrikalari bakoitzaren helburuen arabera entrenamendu planak prestatzen ditugu", aipatu du Ibon Muñozek. Dena den, badaude korrikalari batzuk, hobekuntzarik bilatzen ez dutenak. Taldean korrika egin nahi dute, besterik gabe, bakarka aspertu egiten direlako. Edonola ere, alde sozialak denentzat garrantzia handia duela nabarmendu du Muñozek: "Bi-hiru hilabete behin afariak edo bazkariak egiten ditugu, eta lasterketetan elkarri animatzen diogu".

Prestaketa eta gomendioak

BATEko entrenamendu taldean hasi zenean, Behobia-Donostian 1:30etik jaitea zuen Gorka Yubero helburu. Betetzeko gai izango dela uste du. Beldur pixka bat ematen dio, hala ere, ibilbidearen gogortasunak. Lehen aldiz ariko da lasterketan. "Mundu guztiak esaten du giro handia dagoela, ibilbide osoan zehar jendeak animatzen duela", aipatu du Yubero. Berarekin entrenatzen duten beste gizon-emaume asko ere Behobian irtengo dira. Azaroaren 8an izango da lasterketa. Errotutako proba dela onartu du Ibon Muñozek: "Badirudi Behobian parte hartzen ez duenak ez duela korrika egiten, edo ez dela ona".

Badago masifikazioaren ondorioz Behobia alde batera utzi duenik. Aitzitik, Muñozek

uste du antolatzaileek ondo zaintzen dutela korrikalaria: "Irteerak multzoka antolatu dituztenetik, hobera egin du. Bestalde, dortsalaren prezioa garestia da, baina zerbitzu asko eskaintzen dituzte". Uztailan hasi dira Behobia-Donostia prestatzen. Ibilbide luzeak egin dituzte hasieran, gimnasioko lana eta erritmo aldaketak sartu dituzte ondoren, eta serieak azkenik. Azken asteetan, sasoi mantentzeko lanean ari dira. "Etxeko lanak eginda daude", gogoratu du Muñozek.

Behobiaren aurreko ostiralean lan saio arin bat egiteko gomendatu du entrenatzaileak. Eta larunbatean, lasai-lasai egoteko, entrenamenduaren parte baita atsedena. Lasterketaren aurreko otorduei buruz ere jarraibideak eman ditu Muñozek: "Afarian karbohidratoak jatea komeni da, hori baita hurrengo egunean gorputzak erabiliko duen elikagaia. Gosariak arina behar du izan". Gorka Yubero argi dauka lasterketari nola egingo dion aurre: "Erritmo eramangarrian hasiko naiz, eta lasterketaren erditik aurrera ikusiko dut estutu dezakedan edo ez. Miracruzek min handia egiten duela esan didate". Yubero badaki helburua betetzeko sufritu beharko duela. Baina lasterketaren amaierako sentipenak merezi duela uste du: "Lasterketa bat amaitzeak, helburua betetzeak, zeharo asebetetzen nau".

"Taldeen esfortzu handiagoa egiten duzu. Gehiago estutzen duzu gorputza"

Gorka Yubero, korrikalaria

"Badirudi Behobian parte hartzen ez duenak ez duela korrika egiten"

Ibon Muñoz, entrenatzailea

Barazkiak, auzoan

Baratze komunitario eta ekologikoa dute Landetxean



Landetxa-Katea auzoko Nafarroa Beherea kalean, baratze koskorra dago gaur egun. Garai batean, zaborra pilatzeko edo zakurrak paseatzeko besterik ez zuten erabiltzen lursaila. Hesi txikia du inguruan, baina aterik ez, bizilagun orori irekita baitago. Baratzea banatuko duen partzelarik ere ez dago. Duela bi urte atondu zuten lursaila hamabost laguneko talde batek. Elkarlanean lantzen dute orain baratzea, eta uzta elkarbanatzen dute.

Azaloreek tomateak ordezkatu dituzte jada. Udazkena aurrera doa, eta barazkiak aldatzeko lanean ari dira Landetxako baratze komunitarioan. Denborarekin ikasi dituzte epeak eta prozedurak. Hasieran, ez baitzuten laborantzari buruzko ezagutzarik. “Ez genuen inolako esperientziarik”, onartu du Edgar Indurriak. Ikastaro txikiak egin dituztela, baina batez ere, auzoko baserriarren baratzeak arretaz behatu dituztela azpimarratu du Cristina Bravok: “Zer landa-tzen ari diren begira-tzen dugu, eta horrela konturatzen gara atzeratuta gabiltzan edo ez”. Landako bizimoduarekin lotura handia izan du beti Landetxak. Hori dela eta, bizilagun askoren ekarpenak jasotzen dituzte. “Baratzearen aurretik pasatzerakoan begira gelditzen dira, eta aholkuak ematen dizkigute”, erantsi du Bravok.

Duela bi urte sortu zen Landetxako baratze komunitarioa. Kutxabank-ek antolatutako Ekoliderrak ikastaroan parte hartu zuten Cristina Bravok, garapen jasagarriaren gaian interesatuta. Amaierako proiektu bat egin behar izan zuten, bere taldeekin batera. Auzoko baratze komunitarioaren ideia bururatu zitzairen. Irudizko proiektu

hura errealitate bihurtzeko ahalegina egin zuten ondoren. Laster bidelagun posible batzuk topatu zituzten arren, proposamena auzo osoari zabaltzea erabaki zuten. Horretarako, Landetxa Auzo Elkartearekin harremanetan jarri ziren. “Laguntza handia eman digute”, aitortu du Cristina Bravok. Aste Kulturalaren harira, erakustoki bat jartzea proposatu zieten, bizilagunek baratzeari buruzko informazioa jasotzeko edota proiektuarekin bat egiteko aukera izan zezaten. “Arrakasta izan zuten. Aste Kulturean sortu zen lehen lan taldea”, gogoratu du Edgar Indurriak.

Lursaila begiz jota zuten aspalditik. Abandonatutako eremua zen, inolako erabilpenik ez zuena. Auzoaren erdian zegoen, Elatzeta ikastetxearen atzean. Hondakindegia zirudiela adierazi du Edgar Indurriak: “Garbitzen eta lurrari buelta ematen egon ginenean, zabor pila bat atera genuen”. Lursaila Irungo Udalarena zela jakin zutenean, lagatzeko eskatu zieten arduradunei, proiektua azaldu eta gero. Udalak aurrera egiteko baimena eman zien. Lursaila egokitu behar izan zuten ondoren. Horretarako, traktore bat alokatu zuten, luze-luze zegoen belarra mozteko, eta lurrari lehen

buelta emateko. Lurraren lagin baten analisi ere egin zuten, laborantzarako egokia zen ziurtatzeko. “Baiezkoa eman ziguten, eta lanean hasteko konfirmazioa izan zen hori”, azaldu du Cristina Bravok.

Komunitarioa eta ekologikoa

Hamasei kide ditu, gaur egun, Landetxako baratze komunitarioak. Hilean behin biltzen dira asanbladan, erabakiak hartzeko eta hilabeteko antolaketa egiteko. Asteazkenean zehar txandaka zaintzen dute baratzea, eta larunbatetan, denak elkartzen dira, lan handienak egiteko. Taldea “oso aberatsa” dela baieztatu du Bravok: “Adin eta herrialde ezberdinetako jendea dago. Ezagutzen eta kulturaren transmisioa ahalbidetzen du horrek”. Hiroe Kiuchi japoniarra da. Baratzeo kideen eskutik asko ikasi duela onartu du: “Zerba jateko ohiturarik ez nuen, adibidez. Hemen erakutsi didate nola jaten den, edo zein errezeta erabil daitekeen prestatzeko”. Kai semearekin joaten da Kiuchi baratzerara. Bost urte besterik ez ditu Kaik, baina gustura aritzen da lanean. Haurrentzako espazio bat prestatu dutela azaldu du amak.

Bizilagunek baratzearekiko duten errespetua agerikoa da. Ateak giltzarraporik ez duen arren, inolako arazorik ez dute izan sekula. Gomendioak esker onez hartzen dituzten bezala, interesa duen edonori informazioa edo azalpenak emateko prest daude baratzeo kideak. Ondoan dagoen Elatzeta ikastetxeo arduradunekin harreman ona dute, adibidez. Elatzetako ikasleak astean behin

joaten dira baratzerara, eskola orduetan. “Gogoz etortzen dira, eta asko ikasten dute”, adierazi du Cristina Bravok. Elatzetako nerabeengan interesa piztu dutela uste du: “Etxera bidean baratzearen aurretik pasatzen direnean, tomateak kendu ditugula komentatzen entzuten ditugu, adibidez. Ekarpentxi bat egin dugu behintzat. Madrilgo lagun batek esan zidan, bertan, ikastetxetik supermerkatu eramatzen dituztela haurrak, barazkiak ezagutzeko. Hori zentzugabea da”.

Landetxako baratzearen beste ardatza, ekologia da. Barazkientzat edo lurrarentzat kaltegarriak diren produktu kimikorik ez dute erabiltzen. “Alternatiba naturalak baliatzen ditugu, osinen minda, esaterako”, aipatu du Edgar Indurriak. Nutrizionista da, eta osasunari dagokionez, kontsumo ekologikoa

“oso gomendagarria” dela nabarmendu du. Landetxakoa ez da apustu isolatua. Behe Bidasoa eskualdean baratze komunitario, baratze kooperatiba edo kontsumo talde gehiago sortu dira azken urteotan. Krisi ekonomikoarekin lotu du gorakada Cristina Bravok: “Dena ziklikoa da. Baratze komunitarioen moduko proiektuak krisi garaie-

tan sortu izan dira beti. Jatekorik ez duzuten, alternatibak bilatu behar dira”. Landetxako baratzea ezin da askoz gehiago hazi. Hala ere, erabilpenik ez duten beste espazio asko daudela gogoratu du Bravok: “Antzeko proiektuak sor daitezke”. Landetxean, behintzat, frogatu dute ereduak funtziona dezakeela.

“Lurrari buelta ematen egon ginenean, zabor pila bat atera genuen”

Edgar Indurria

“Baratze komunitarioen moduko proiektuak krisi garaietan sortu izan dira”

Cristina Bravo

Irungo La Salle LH2

JANISHA SOTO LH 2. maila

Ura eta sua belauetik behera



AITANA SANCHEZ LH 2. maila

Ura eta sua belauetik behera



Txingudi Ikastola BHI 1.go maila. Nagore Lei Lizarraga

Algaraka

Emandako argazkiari erreparatu eta istorio bat sortu behar dute ikasleek, umore puntu batez.



AI AMATXO MAITIA

Orain dela urtebete, niri eta nire lagunei gertatu zitzaigun gauza barregarri bat kontatuko dizuet. Larraitz izena dut eta nire lagunak Joseba, Aitziber eta Mikel dira. Lizarrakoak gara.

Dena Asturiasko "Picos de Europa"-ra joan ginenean jazo zen. Honela gertatu zen...

Kurtsoa bukatu zen eta ikastolako azterketa nagusiaren emaitzak eman zizkiguten. Denok bakoitzaren gelatik ateratzerakoan elkartu ginenean, bata besteari begira gelditu ginen eta irribarre egin genuen. Azterketa gaititu genuela esan nahi zuen horrek. Beraz, gurasoek hitz eman zigutena bete beharko zuten: Asturiasko "Picos de Europa"-ra joango ginen udako oporretan, nire gurasoekin!

Etxera iristerakoan, gurasoei berri onak eman genizkien. Zoriondu ondoren, bidaiarako antolatzen hasi ginen. Nire gurasoen autoan joango ginen "Picos de Europa"-ra. Josebak, bere amak egindako janari gozoa eramango zuen denontzat. Mikelek, bere kanpin-denda handia eta Aitziberrek edariak, musika eta jokoak.

Oporretara joateko eguna iritsi zen. Denak oso urduri ginen. Bidea oso luzea eta bihurturatsua izan zen. Bidea entretenigarria izateko, txistek kontatzen eta kantu kantari joan ginen. Hala era, Joseba loak hartu zuen, zurrunga handiak eginez. Gu barreari eutsi ezinik ginen.

Iritsi ginenean, denak autotik jaitsi ginen, Joseba izan ezik. Autoko leihoak irekita utzi genizkion, bero handia egiten zuelako. Paisaia zoragarria zen: mendi ederrak, zuhaitzak, belardia... baina hara non ikusten ditugun zaldia! Josebak ekarritako azenarioetako bat hartu genuen, berari susto handia emateko.

Azenarioa zaldiari hurbildu genion, autoko leihora eramanez. Leihora iristerakoan, azenarioa Josebaren eskuen artean jarri genuen. Orduan, zaldiak bere burua leihotik sartu zuen azenarioa hartu ahal izateko. Baina momentu hartan, Joseba esnatu zen. Orduan, bai zaldia eta bai Joseba, begira gelditu ziren.

-AAAAAAAAAAAAAAAAAAAAAAAAAAAA!!!
AI AMATXO MAITIAAAA!!!- oihu egin zuen Josebak. Momentu berean, zaldiak irrintzi egin zion.

Denak barre algaraka hasi ginen. Josebak berri, izu aurpegia zeukan. Zaldiak azenarioa hartu eta joan egin zen.

Bai modu ona oporrek hasteko! Egia esan, Joseba ez zen haserretu.

Denok oso ondo pasatu genuen eta sekulako gaupasa egin genuen, beldurrezko istorioak kontatuz eta ezkutaketetan jolastuz.

EUSKARAZ, IRUNEN BARRENA

Apaiz ehiztari porrokatuaren istorio hau ha- maika lekutan jaso dute etnologoek Euskal Herria osoan barrena. Bizkaiko barnealdeko elizalde batean entzuteko parada izan nuen neronek ere.

Lerro hauetara ekarri dudak bertsioa Irungo S.R.A. andereari entzun nion. Ama oiartzuar- rak kontatu zion. (El Bidasoa, 1959-1-24)

Errege Salomon

Errege Salomon Meza ematen aizela, bi txakur egoten ziren aldarian bi aldetan.

Eskopeta, sankristeiko atian atzian, eta «Dominus Vobiscum» egintzuen denboran erbi bat sartu zen elizako atian atzetik.

Utzi zuen Meza eta artu zuen eskopeta, eta bi txakur atzetik.

Joantzen erbiyeri segi eta Jangoikuak emantziyon penitentziya mundua deiño alaxe segitzeko bere apaiz jantziyan Meza emateko zagon bezala.

Iturria: Nikolas Alzola Gerdiaga
Euskaraz, Irunen barrena.

RESTAURANTE
Muga
JATETXEA

Merkatuko produkturik onenak sukaldatzen ditugu

Facebook icon

Maria Juncal Labandibar, 36 BEHOBIA. 943 620071





Gazte informazioa baino gehiago

Jakina da gazteek askotan informazio desberdina behar izaten dutela. Sexualitatea, bekak, ikastaroak, lana edo aisialdia izan daitezke haien kezkek. Irungo Udalak, gazteei zuzendutako zerbitzu zehatza eskaintzen du. Igazte Irungo Gazte Informazio Bulegoko kideak dira Mariola Marín Gazte Informatzailea, eta Marian Mateos Informazioko eta Tramitazioetako Laguntzailea. Interneten bidez egiten dute lan, eta aurrez aurre ere galderak erantzuten dituzte. Lehen Foru kalean, eta gaur egun, CBA liburutegi berrian.

Urriaren ireki dute Irungo Carlos Blanco Aguinaga liburutegia, eta horrekin batera, Gazte Informazio Bulegoari kokapen berria eman diote. Foru kalean zegoen lokala CBAra mugitu dute, eta eskaintzen zituzten zerbitzuak, ahal duten neurrian, mantenduko dituzte. "Eskaintzen dugun zerbitzua, batez ere gazteei zuzenduta dago, baina egia da askotan beste profil batzuetako jendea etortzen dela" aitortu du Marian Mateosek.

Gaur egun, gazteek informazio asko daukate. Internetek abantailak dakartza, baina egia da, askotan zaila dela bekak, lan eskaintzak, diru laguntzak, praktikak edo ikastaroak bilatzea. Igazten informazioa biltzen dute eta Interneteko kaosa antolatzen dute, www.irun.org/igazte/ web orrian.

"Guk mantentzen dugu web orria, eta saiatzeko gara egunero eduki berria sartzeko. Oso bizirik dago Igazteko informazioa", azaldu du Mariola Marinek. Halaber, twitter-en eta facebook-en bidez informazioa ematen dute, eta zalantzak erantzuten dituzte. Komunikabide berriak ere erabiltzen dituzte, adibidez, telefono zenbaki bat dute, baina ez deiak jasotzeko, whatsapp aplikazioa erabiltzeko baizik.

Dena den, Irungo Udalaren zerbitzu honetan ez dira soilik galderak erantzuten. Bulegora hurbiltzen diren gazteek normalean

ez dute galdera zehatzik. "Pasa zaigu gazte bat etortzea eta galdetzea ea zer diren oposizioak, betirako lana eskaintzen duten lanpostu horiek. Informazio guztia azaldu behar izaten diegu. Gazteek askotan ez dakite zer nahi duten. Batzuetan asmatu behar izaten dugu zer behar duten", kontatu du Mariolak.

Sexualitatea

"Gero eta nahi gabeko haurdunaldi gehiago izaten dira Irunen, eta Asexoritate programa oso egokia iruditzen zaigu arazo horri konponbide bat bilatzeko, ahal den neurrian", azaldu du Marianekek.

Araoari aurre egiteko, Asexoritate programa eskaintzen dute. Ekimen horren baitan, tailerrak eta aholkularitza ematen dituzte. Aurten, nobedade bezala gurasoei zuzendutako beste tailer batzuk eskainiko dituzte. "Hemen jasotzen ditugun sexu galdera asko, emagin bati bideratzen dizkiogu. Harreman ona daukagu", azaldu du Mariolak.

Azaroaren 5ean izango da hurrengo tailerra, eta Itsaso Carrizo psikologo eta sexologoak emango du. Tailerretara hurbildu nahi ez dutenentzat, telefonoz edo internet bidez galderak egiteko aukera eskainiko dute.

Bestalde, urte guztian zehar bulegoan erantzuten diete gazteek egindako galderari, kondoiak ematen dizkiete behar izate-

kotan, eta zenbait kasutan emaginarengana bidaltzen dituzte. Normalean gazteek intimitate asko nahi izaten dute, konfiantza izateko. Lokalaren aldatzarekin ez dakite jendea lehen bezala hurbilduko den galderak egitera.

"Liburutegiaren sarreran mahai bat daukagu, eta gazteen aretoan beste toki bat. Foru kaleko lokalean intimitate handiagoa geneukan eta ez dakigu leku berrian jendeak nola erantzuko duen. 17 urte arteko leku bat da, eta zaila da beste gazte helduagoak erakartzea. Ondoan liburutegia daukagu" azaldu du Marianekek. "Orain arte egin dugun lanarekin jarraitzeko zailtasunak ditugu: isil-isilik egon behar dugu, ezin dugu muskarik jarri, eta horrela, ondoko

jendeak dena entzuten du, eta intimitatea galtzen da" gehitu du Mariolak.

Egoera horrekin kezkatuta daude, konfiantzaltasuna galdu daitekeelako. Bukatzeko beste kezka bat azaldu dute: "Zaila da hemen jendea etxean bezala sentitzea, hori galdu daiteke. Etorkizunerako kezkatuta gaude. Aldaketarekin ez dakigu zerbitzu berdina ematen jarraitu ahal izango dugun. Hala ere, egia da oso denbora gutxi daramagula kokapen berrian. Jendea oraindik ez da konturatu beste leku batean gaudela. Foru kaleko bulegora hurbiltzen direnean han jarritako kartela irakurtzen dute. Hori bai, jakin ezazue zuentzako hemen gaudela. Betiko Igazte, leku berri batean!".

Folder

Paper-dendarik merkeena
ZIURTATUTA

Kolon ibilbidea, 2
(atzeko aldea)
www.kopiar.net
kopiar@kopiar.net
943 63 93 01



2016KO UDARAN HIZKUNTZAK IKASTEKO BEKAK

Zer? Eusko Jaurlaritzak 533 plaza eskaintzen ditu, aleman ikastaroak egiteko Alemanian; frantsesekoak, Frantzia; eta ingelesekoak, Erresuma Batuan eta Irlandan.

Eskatzaileak? DBHko 3. eta 4.eko eta Batxilergoko 1. eta 2.eko ikasleak.

Betekizunak?

- 19 urtetik beherakoa izatea, edo 2016an betetzea.

- 6ko gutxieneko nota eskatuko dute hizkuntzetan.

Epea? azaroak 23.

Deialdia?

www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eu

§



UNIBERTSITATE PRAKTIKAK AL-CAMPO SUPERMERCATUETAN

100 toki eskaintzen dira: 4 Iru-nen eta Oartzunen. Beste leku batzuk: Logroño, Burgos, Zaragoza, Madril eta Bartzelona.

Betekizunak?

- Unibertsitateko ikaslea edo tituludun berria izatea.

- Titulazioak: ADE, Zuzenbidea, Ekonomikak, Lan Harremanak, Elikagaien Zientzia eta Teknologia, Marketin eta/edo Publizitatea (ez dira alde batera uzten beste titulazio batzuk).

- Frantsesa edo Ingelesa: B2, lehenetasunez.

Iraupena? 6 hilabete.

Epea? azaroak 15.

Izena emateko? <https://alcampoempleo.epreselec.com/Ofer-tas/Ofer-tas.aspx>

DBH GRADUATU TITULUA

Zer? Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatu Titulua lortzeko proba libreen deialdia. 2015-2016 ikasturtea.

Matrikula egiteko epea? urriaren 19tik azaroaren 5era.

Lekua: UOHI Urrutiko Oinarritzko Hezkuntzako Ikastetxe-tan.

Probaren data: azaroaren 27a.

Informazio gehiago?

http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-2459/eu/contenidos/informacion/dif4/eu_2079/graduado_edu_secu_e.htm



DEFENDA EZAZU ZEURE BURUA!!!

Zer? Defentsa pertsonalerako oinarritzko teknikak. Helburua balizko erasotzaile baten aurrean libratzerakoan erabili beharreko hainbat teknika erakustea da, eta gai izatea egoera kritiko bati erantzuteko lehenik eta behin, distrazio eta norbera menderatzeko teknikak erabiliaz. Eta eraso ezin badaitete ekidin, norbera babesteko teknikak, erasotzailea menderatzeko.

Egunak: azaroaren 2tik 23ra.

Ordutegia: astelehen, asteazken eta ostiraletan 20:00etatik 21:30 etara

Lekua: DYako Boluntarior-tza eta Formakuntza Gunea (Baratzategi 10 - Intxaurrondo) Donostia.

Prezioa: 80€

Informazio gehiago:

<http://www.dyagipuzkoa.com/>



- Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berrian
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Webean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

Lan eskaintzak elurretan 2015-2016

- Elurra kentzeko makinak erabiltzeko lana Italian.

- Hoteletan lan egitea.

- Aramon-ek eskaintako lanak.

- Grandvalira-n lan egitea.

- Eski-estazioak...

Informazio gehiago eta lan eskaintza gehiago: <http://www.irun.org/igazte/>



Arrigain Asesores S.L.

ZERGAK - LAN-KONTUAK - KONTULARITZA - ASEGURUAK



Zerbitzuak:

Kudeaketa administrazioak, laboralak, kontularitzakoak eta zergenak
Ibilgailuen eskualdaketa
Ondarearen transmisioak, dohaintzak, oinardekotzak...

Errenta aitortpenak
Aseguru orokorrak
Eta abar...

Azaroak 5

Zer? Bertso gaua. Hirugarren denboraldiko bigarren saioa, Irunabarren eskutik.

Bertsolariak:

- Iñigo Ugarte
- Miren Artetxe
- Aimar Karrika
- Maider Arregi

Gai-jartzaile: Zuhaitz Olazabal



Parte-hartzaileak (bertso jarririk idatzi ta kantatu): Exteban Martiarena

Non? Kabigorriin.

Ordua? 19:30etan

Prezioa? Doako sarrera

Azaroak 7

Zer? Arbasoen informazioa aurkitzeko orientabideak azalduko dira (kontsulta daitezkeen artxibo eta web orriak), zuhaitz genealogiko bat nola egin, abizenak nondik datozen ezagutzea...

Ordua? 10:00etan.

Non? Meakako Auzoko Elkartean.

Prezioa? Doako sarrera.



Urriak 7

Zer? Santiagoko Deabruak elkartek antolatutako Beldur Pasabidea

Non? Ficoban.

Ordua? 18.00etatik 22:00etara

Prezioa? 2 euro

Sarrerak lortzeko? Sarreraren salmenta azaroaren 2tik 6ra

arratsaldeko ordutegian (17:30-19:30) IGAZTE bulegoan izango da (CBA Kultur gunean, San Juan Plaza, 1. solairua)

Informazio gehiago: 5. orrialdean.

Azaroak 14-15

Zer? Neguko kiroleko azoka ospatuko da Sport Jam-en 2015eko edizioan.

Ordutegia? 11:00etatik 20:00etara.

Non? Ficoban.

Prezioa? Egun bakarra: 9 euro, 10. urteurreneko bonoa: 5 euro, 6 urtetik bererakoek doan.

Informazio gehiago 6 eta 7 orrialdeetan.



Azaroak 17

Zer? Luis Mariano Lirika Elkartek "Arabella" filma emango du.

Ordutegia? 19:00etan.

Non? Amaia KZ hitzaldi aretoan.

Prezioa? Doako sarrera.



"APAIN MAHIKO ISTORIOAK. KOSMETIKA ETA EDERTASUNA ANTZINATEAN"

Inaugurazioa uztailaren 10ean izan zen eta erakusketak azaroaren 30era arte jarraituko du.



erreserba eginda edo egun berean lekurik bailego.

- Bestelako ordutegietan: aldeztu aurretik erreserba eginda Museoarekin harremanetan jarrita. Bisitaldi gidatuak doakoak dira.

Non? Oiaso Erromatar Museoan

Ordutegia? Asteartetik larunbatera: 10:00-20:00; Igandeetan: 10:00-14:00

Prezioa? 3 euro

Erakusketarako bisitaldi gidatuak: - Larunbatetan 12:30ean aldeztu aurretik

Aldi berean, Oiaso Museoak aurkuntza-bisitaldiak martxan jartzen ditu. Familia giroan hurbiltzen direnentzat doako material didaktikoa eskainiko zaie, bisitaldia modu atsegina eta debertigarriago batean egin dezaten.



Nafarroa ibilbidea, 7 - IRUN
info@ekarinmobiliaria.com

+34 943 628 333
www.ekarinmobiliaria.com

PRIMERAKO AUKERAK



Pisua salgai Irun San Juan
Azalera 60 m², 2 gela, bainu-gela, egongela, sukaldia, trasterokua, berokuntza elektrikoa, hegaldeturkiz, eguzkitua.

Ref: 04297 99.000 €



Pisua salgai Hendaya
Azalera 65 m², 2 gela bikote, banugela, komun, egongela, sukaldia, terraza, trasterokua, berokuntza elektrikoa, hegaldeturkiz, eguzkitua eta biela poltikin. Aparkalekua barne.

Ref: 03511 175.000 €



Pisua salgai Irun San Juan
Azalera 80 m², 3 gela, banugela, egongela, sukaldia, berokuntza elektrikoa, hegaldeturkiz, eguzkitua eta biela poltikin. Pisua zaharberria.

Ref: 04333 140.000 €



Pisua salgai Irun Alde Zaharra
PRIMERAKO AUKERAK
Azalera 35 m², gela 1, banugela, komun, egongela, sukaldia, trasterokua eta biela zaharberria.

Ref: 04399 70.000 €



Pisua salgai Irun Palmera
Azalera 88 m², 3 gela, 2 banugela, egongela, sukaldia, bikote, trasterokua, igogelua, berokuntza, eguzkitua.

Ref: 04290 248.000 €



Pisua salgai Irun Arbes
Azalera 81 m², 3 gela, banugela 1, egongela, sukaldia, berokuntza, trasterokua, biela eta terraza eta eguzkitua.

Ref: 04370 144.000 €



Pisua salgai Irun Behobia
Azalera 70 m², 2 gela, banugela 1, komun 1, egongela, sukaldia, biela, berokuntza, igogelua, eguzkitua.

Ref: 04369 170.000 €



Etxea salgai Irun Erdian
Azalera 200 m², 3 gela, 2 banugela, komun 1, egongela, sukaldia, terraza, bainua, berokuntza, kofretoa, eguzkitua. Garajea eta biela barne.

Ref: 04395 460.000 €



Etxea salgai Irun Ventas
Azalera 270 m², 3 gela, 2 banugela, egongela, sukaldia, 2 terraza, berokuntza, eguzkitua. Garajea eta biela barne.

Ref: 04374 480.000 €

Eskari handiagatik, alokatzeko etxebizitzak behar ditugu!!

UDAZKEN GASTRONOMIKOA

Muga Jatetxean



Iñaki Barros

Azaroak 6



Koldo eta Iñigo KORTABITARTE
KOBİKA Jatetxea
Durango

Menua

☞ *Aperitifa*

Ahate-carpaccioa kimuekin eta udazkeneko barazkitxoekin
Sarría Chardonnay

☞ *Hasierakoak*

Arrautza ikaztua
Bieira, mutur eta gari-esparragozko ragouta
Palacio de Bornos kupelan hartzituta

☞ *Arraina*

Bakailaua eta kalabaza
Guelbenzu Azul

☞ *Okela*

Lumagorri biribilkia eta ondoak
Guelbenzu Evo

☞ *Postrea*

Intxaursaltsa gazta freskozko izozkiarekin
eta irasagarrarekin
Sarría Moscatel



4 ESKUKO
AFARIAK

45 €



Baseclick



M. J, Labandibar, 36. 943 620071 21:00etan
BEHOBIA

HOTEL
ETH
IRUN

